

## Sustapen Ekonomikoko Zinegotzigoak talentua erakartzeko estrategia indartu du Polymatekin batera



(José María Asua, Polymateko zuzendaria, Marisol Garmendia, Ekonomia Sustatzeko zinegotzia, eta Idoia Azaldeggi, Polymateko arduraduna)

Donostiako Udalak Polymat enpresarekin hitzarmen bat sinatu dute elkarrekin talentua erakarri eta garatzeko, hezkuntza inguruneko gaitasunak garatzeko, eta ekintzaitza, zientzia dibulgazioa eta bokazio zientifikoak sustatzeko, edo Europako programak detektatzeko, haietan parte hartzeko xedearekin. Hitzarmenak emakume zientzialariak bistartzeko jarduerak sustatzeko laguntza espezifiko hartzen du.

Sustapen Ekonomikoko zinegotziak, Marisol Garmendia, Polymaten Zuzendari Zientifikoak, José María Asúa, eta enpresaren kudeatzaileak, Idoia Azaldeggi, parte hartu zuten hitzarmena sinatzeko ekitaldian adierazi zuenez, “Donostia Sustapenetik, Donostia berrikuntza eta jakintza gune gisa sendotzeko jarraitzen dugu lanean, talentua garatze, atxikitze eta erakartze aldera, eta halako hitzarmenekin, zentroek tokiko talentua atxikitze eta goi mailako ikertzaileak erakartzeko lana egiten dute. Kasu honetan, gainera, emakumeak zientzia arloetan duen betekizunari ikusgaitasuna emateari eman zaio garrantzia, berdintasuna sustatzeko gure estrategiaren ildo berean”.

Hitzarmenak arlo hauek hartuko ditu:

### 1.- Talentua erakartzea eta garatzea

Polymatek langileak barneratzeko aukerak eta donostiarrei atzerrian egoteko egonaldiak errazteko moduak identifikatuko ditu. Donostia Sustapenak haien eskura jarriko ditu hainbat aukera: Talent House Harrera Egitasmoa, Talentuaren itzulera, Talentu Berritzailea, nazioarteko mugikortasun programak, etab.



## **2.- Hezkuntza eremuan gaitasunak garatzea**

Bi alderdiek modu aktiboan hartuko dute parte Polymaten ikerketa arloan bokazioak sustatzen: energian, osasunean, jasangarritasunean, esaterako. Urtean behin, Polymatek erronka esperimental bat proposatuko du Donostia Innovation Campus programaren esparruan.

## **3.- Ekintzailletza**

Bi entitateek Donostian ekintzailletza eta transferentzia teknologikoa sustatuko duten jarduerak eta programak bultzatuko dituzte. Polymatek ikerketa gaitasunetan oinarritutako ekintzailletza proiektuak detektatu beharko ditu Ekin+ programari eratorzeko. Donostia Sustapenak oinarri teknologikoko I+G proiektuentzat (Ekin+ programa, inkubagailua, etab.) ekintzailletza programen difusioan ere lagunduko du.

Donostia Sustapenak Polymaten ikerlarientzako ekintzailletza gaitasunak garatzen lagunduko du, lidergoan prestatuz eta sentsibilizatuz, eta baita taldeko liderrentzako ekintzailletza ere.

## **4.- Zientziaren dibulgazioa eta emakumearen betekizunak**

Polymatek zientziaren dibulgaziorako eta bokazio zientifikoak sustatzeko eduki desberdinak proposatuko ditu. Sustapenak emakumeak zientzia eta berrikuntzan dituen betekizunak ikusgai egiteko lerroa sustatuko du. Horretarako, 2022an Polymatek zuzenduko duten Emakumeak Zientzian zikloa bezalako ekitaldiak sustatuz, esaterako.

## **5.- Europar proiektuen eta finantzaketa-proiektuen identifikazioa**

Bi entitateek elkarrekin aztertuko dituzte ikerketa arloko proiektuen identifikazioan, prestakuntzan eta aurkezpenean lankidetzaz aukerak Polymantentzat interesgarriak diren arloetan: energia, osasuna eta jasangarritasuna, besteak beste.

### **Donostia Sustapenari buruz**

Donostia Sustapenak, hiriaren sustapen eta garapen ekonomikorako udal entitateak, urteak daramatza Donostia berrikuntza eta jakintza gune bihurtzeko hiriaren eraldatzeko eta sendotzeko estrategiak lantzen. Xedea talentua garatzea, atxikitzea eta erakartzea da, hirian finkatutako Zentroetan sortutako jakintzaren eraldaketarekin batera, eta ETEekin eta ekintzaileekin konektatzen dituelarik.

### **Polymati buruz**

Polymateren xedea nazioarteko mailan polimeroetan bikaintasunean oinarritutako ikerketa zuzenduko eta estrategikoko zentroa izatea da. Euskal Herriko Unibertsitatearekin kolaboratzen du horretarako, eta nazio zein nazioarteko arlo horretako ikerketa zentro nagusiekin lankidetzan egiten du lan gizartearen interesen lerrotik, eta garapen eta ongizatea lortze aldera, nazioarteko aurrerapen zientifikoak bultzatzeko eta material polimerikoak ezagutzea transferitzeko komunitate zientifikoaren eta gizarte osoaren onurarako.

